

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3327

EBAZPENA, 2016ko uztailaren 5ekoa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako bitariko lankidetza-batzordearen akordio bat. Akordio hori honako lege honi buruzkoa da: Adikzioei eta droga-mendekotasunari arreta integrala emateko 2016ko apirilaren 7ko 1/2016 Legea.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den akordioa hartu ondoren, eta artikulua horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako bitariko lankidetza batzordearen Akordioa, Adikzioei eta droga-mendekotasunari arreta integrala emateko 2016ko apirilaren 7ko 1/2016 Legeari buruzkoa. Ebazpen honen eranskinean jaso da, hain zuzen ere, akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 5a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,
SABINO TORRE DÍEZ.

ERANSKINA

AKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA, HONAKO LEGE HONEN ARLOKOA: 1/2016 LEGEA, 2016KO APIRILAREN 7KOA, ADIKZIOEI ETA DROGA-MENDEKOTASUNARI ARRETA INTEGRALA EMATEKOA.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetza Batzordeak honako akordio hau hartu du:

1.— Adikzioei eta droga-mendekotasunari arreta integrala emateko 2016ko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 83. eta 84. artikulua direla-eta sortutako desadostasunak ebazteko negoziatzioei ekitea.

2.— Bitariko Lankidetza Batzordeari konponbidea proposatuko dion lan-taldea izendatzea.

3.— Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinarazten zaio, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Madril, 2016ko uztailaren 4a.

Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa,
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.